DROGAK ETA GERRA

Drogek erabilera bitxia izan dute historian zehar, esaterako erabilera ludikoa, terapeutikoa, ihesbide bezala... Baina askotan, gerretan ere erabiliak izan dira.

Gerrak muturreko egoerak dira, eta haietan parte hartzen dutenek etsaien aldean onurak ematen ahal dizkieten baliabideetara jotzen dute. Literaturan egoera erreal eta mitologiko ugari aurkitzen ditugu, zeinetan edabeetara jotzen baita garaipena lortzearren.

1806. urtean, Setürner-ek morfina isolatu zuen. Bere ezaugarri analgesiko indartsuak zirela eta, gudutan erabiltzen hasi zen. I. mundu gerran, morfina erabiltzeagatik morfinomano kronikoen, hau da, morfinaren mende daudenak, lehen belaunaldia sortu zen. Hala ere, morfina militarrek erabiltzeaz gain, zibilek ere erabiltzen zuten. "Menpekotasun artifiziala" edo "gaitz militarra" deitu izan zaio. Oinazea kentzeko eta adorea hartzeko erabili zen morfina.

Laster, morfinaren menpekotasuna kentzeko soluzioa bilatu zen. Morfina azetilatuz substantzia berri bat lortzen da, diazetilmorfina, heroisch, HEROINA izenez ezagunagoa. Substantzia hau Dreser farmakologoak aurkitu zuen 1874. urtean, morfinaren ezaugarri analgesikoak izango zituen baina menpekotasunik sortuko ez zuen substantzia bilatzen zegoelarik. Bere hitzetan "*heroinak ez du gaitasunik ohitura sortzeko, aise erabiltzen da eta, batez ere, bakarra da morfinomanoa denbora txikian sendatzeko gauza dena*".

Baina errealitatea bestelakoa zen: heroinak ez zuen morfinomania sendatzen eta, gainera, droga guztien artean menpekotasun handienetakoa eragiten zuen; beraz, morfinaren menpekotasunetik ateratzeko beste bat, harena baino larriagoa, sortu zen heroinarekin. 1930.ean opioa baino merkeagoa zen narkotikoan bihurtu zen. Mafiek substantzia honekin trafikatzen hasi ziren; gainera gizarteko egoera bereziak (Vietnameko guda eta honek gazterian izan zuen eragin handia esaterako) gazteen artean heroinaren kontsumoaren gorakada suposatu zuen.

II. Mundu gerran, borrokalari guztiek erabili zituzten usu droga guztiak; Ingalaterrako armadak 80 milioi konprimitu zituen banatuak 1942an. 1950ean, Japonian bada anfetaminen menpeko jende asko, aurreko gerraren ondorioz. Menpekotasun horren erruz omen dira urte horietako homizidioen erdiak Uhartean.

Espainiako gerrari dagokionez, hainbat soldadu "adoretsu" bihurtzen ziren "salta parapetos" izenekoa hartu ondoren; hau da, kalitate gutxiko brandya. Honez gain, guda zibilaren garaian anfetamina espainiar estatuan sartu zen, nekea eta logurea gutxitzeko zuen gaitasunagatik eta jardun fisiko eta psikikoa handitzeko zituen ezaugarriengatik erabili zelarik.

II. Mundu Gerran soladuek eta, batez ere, hegazkin pilotuek, metanfetamina edo speed hartzen zuten. Kamikazeek sarri hartzen zuten eta batzuetan arreta galdu eta aurkariaren aireportuetan lur hartzen zuten. Gobernu japoniarrak esaterako, armagintza industriako langileak behartu egiten zituen speed kontsumitzera lan gehiago egin zezaten. Gerra amaituta, metanfetamina stockak zeuden Japonian eta gobernuak herritarrei sintesi droga hau kontsumitzea gomendatu zien, gerra galduta depresioa, adoregabekeria eta apatia ohikoak baitziren. 1948an 16 eta 20 urte bitarteko gazteen %5 adiktoa zen.

Vietnamen ere soldaduek sintesi drogen eragina "jasan" behar izan zuten. Ketamina, gudan zauritutako zibilen eta soldaduen tratamenduan erabili zen. Drogak analgesiko gisa erabili nahi bazituzten ere, gero ohartu ziren ordea aluzinazioak sorrarazten zituela.

Gaur egun, gerra guztietan hedatu dira. Mende honetan, gerrak droga berriak hartu eta esperimentatzeko tokiak izan dira; helburua, soldadu alienatu eta gogorragoak egitea delarik, borrokaren lazgarria eramaten dakitenak.

Muturreko egoerek, hala nola gerrek, substantzien kontsumo neurrigabea bultzatzen dute. Izan ere, eguneroko bizimodua benetako oinazea da jende askorentzat, oinaze psikologikoa, soziala edo gorputzekoa, eta batzuek nahiago dute drogekiko menpekotasun erabatekoan bizi. Orduan, arriskutsua da droga makulu gisa erabiltzea; batzuetan hainbat egoerari aurre egiteko, beste batzuetan bizirik segitzeko, besterik gabe

Mendiburu kalea 5
943 49 11 05
drogaklarrugorrian@askagintza.com